

ar**o**a

euskara indarberitzeko
eta euskaldunok ahalduzko
marko estrategikoa

GASTEIZKO EKINTZA PLANA 2024-2028



SARRERA

ABIAPUNTUA

Euskararen erabilera sustatzeko laugarren plana da aurkezten duguna. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia edota Euskara Sustatzeko Ekintza Plana izenburu izan dute aurreko hiruek. Oraingoari AROA-Gasteizko Ekintza Plana 2024-2028 izena jarri diogu, AROA izena baitu datorren hamarkadarako euskararen "marko estrategikoa" izateko Eusko Jaurlaritzak egin duen proposamena.

Nondik abiatzen gara? Zein da gaur egun egoera? Ebaluazio txostenetik hainbat datu esanguratsu atera ditugu, argazki txiki bat emate aldera. Honako hauek, alegia:

- Euskararen ezagutzak gora egin du Gasteizen: 4 urtetik gorakoan artean, ia % 30 dira euskaldunak. Ia euskaldunak % 16 inguru. Emakumezkoen artean euskaldunen portzentajea ia bi puntu handiagoa da: % 29,8 eta % 28,0; hurrenez hurren.
- Gazteen artean (5-19) % 3 inguru dira euskara ulertzen ez dutenak (emakumezkoen kasuan % 2,5 besterik ez). Ulermen unibertsaltetik gertu gaude.
- Baina gasteiztar gehienak¹ (kasik % 80) hobeto moldatzen dira gaztelaniaz euskaraz baino.
- Familia gehienetan, gaztelania da etxeko hizkuntza: % 85. Haurrak eskolaren bidez euskalduntzen dira batik bat.
- Kale erabilera % 4ren bueltan dago trabatuta. Gehiago erabiltzen da testuinguru formalagoetan kalean baino. Erabilera kalean, oro har, handixeagoa da emakumezkoen artean, gizonezkoen artean baino.
- Auzoka, auzo berriek pisu handia dute (demografikoa eta soziolinguistikoa): Goikolarra, Salburua, Zabalgana. Salburuan, adibidez euskaldunak dira % 40,5, ia euskaldunak % 30
- Jatorri atzerritarra duten pertsonak: % 14,3 dira. EAeko daturik altuenetakoak.

Arloz arlo ere datu interesgarriak atera dira:

¹ Euskararen Adierazle Sistemak ez du, herrialde mailan, generoaren araberako daturik ematen.

- Udalaren euskarazko eskaintza (aisialdia eta kirola) % 24 inguru dago. Gora doa baina oso poliki.
- Euskarazko kultura-eskaintza handiagoa da haur eta gaztetxoei zuzendutako jardueretan (% 60 - % 70); eskaintza askoz txikiagoa da publikoa generikoa denean (% 20 inguru).
- Eskolaz kanpoko ekintzei dagokienez, gutxi gorabehera erdia eskaintzen da euskaraz. Eskola kirola da nagusi, eta hor ere antzeko kopuruak ditugu. Ekintza asko dira eta eragile ugari.
- Arlo sozioekonomikoan, gutxi dira hizkuntza politika definitua duten enpresak/establezimenduak. Erabilera gora doa, baina poliki.
- Helduen euskalduntzea: oro har, behera egin du matrikulazioak euskaltegietan. Udalaren eskaintzan jaitsiera are nabarmenagoa da. Edonola ere, euskaltegien inguruko iritzi ona dago gizartean.
- Genero-ikuspegia garrantzitsua da helduen euskalduntzean. 2023-2024 ikasturtean, esate baterako, 3384 lagunek eman zuten izena Gasteizko euskaltegietan: 2.321 emakumezkoak, 1.059 gizonezkoak eta 4 ez bitarrek. Emakumeak ziren ikasleen % 68. Udalaren eskaintzan kopuru hori are nabariagoa da: 2023-2024 ikasturtean matrikulatu ziren 415 ikasleetatik emakumezkoak ziren % 73.

Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak onetsitako Aroa —Euskara indaberritzeko eta euskaldunon ahalduntzeko marko estrategikoa, alegia—“nahi estrategiko” sendo batetik abiatzen da: “gure testuinguru eleaniztunean, euskal hiztun aktiboak eta ahaldunduak dituen komunitate indartzea, gizarte ekitatea eta justua eraikitzeke helburuz”. Hortaz, marko instituzional hutsa izatetik harago, hiru hitzek hartzen dute indarra: aktibazioa, komunitatea eta justizia soziala. Misioak ere elementu berritzaileak ditu, aurreko hiru elementu horiez gain: kultura soziolinguistikoko berri bat eraikitzeke apustua egiten du, errealitate eleaniztuna erdigunera ekartzen du eta –edukien zein metodologiaren aldetik– parte-hartzearen, lankidetzaren eta berrikuntzaren garrantzia azpimarratzen du. Marko interesgarria da, tokian tokiko errealitatera ekarri eta egokitu behar dena.

Gasteizko Aroa mugatuagoa da bi aldeetatik: batetik, markoa Udalaren beraren eskumenen barruan kokatzen duelako, eta bestetik, epemuga laburragoa duelako (5 urteko plana da). Edonola ere, bat dator Euskara indaberritzeko eta euskaldunon ahalduntzeko marko estrategikoaren misioarekin, ikuspegiarekin eta balioekin.

GASTEIZKO AROAREN HELBURU NAGUSIA

Gasteizko AROA planaren xedea da, arloz arlo, Gasteizko hiriak euskararen inguruan dituen erronkak definitzea, eta —horien arabera— Udalak zein gizarte eragileek arlo bakoitzean jorratu behar dituzten lan-ildoak eta ekintzak finkatzea. Alde horretatik, lankidetzarako esparruak identifikatzeko tresna ere bada.

IKUSPEGIA

Bost urteko epea tarte txikia izanik ere, hainbat aurrerapauso aurreikusi nahi genituzke epe labur-ertainean. Horiek erronketan islatu dira, bereziki. Bestek beste, honako puntu hauek azpimarratuko genituzke:

- Arlo guztietan eragileak gehiago inplikatzeko espero dugu, baita -- pausoak eman ahala-- elkarrekin saretzea ere. Arloz arlo euskararen aldeko dinamika biziagoak eta erreferente berriak sortzea espero dugu.
- Lankidetzaren sare zabalagoak osatzea: beste administrazioekin (Jaurlaritzarekin eta Foru Aldundiarekin, bereziki) hainbat proiektu pilotu martxan jarri eta horietan gizarte eragileen inplikazioa bilatu.
- Udalaren barruan ere, proiektu konpartituak abiatu nahiko genituzke, batez ere guretzat estrategikoak diren zerbitzuekin edo atalekin batera: Ekonomia Sustapena, Hezkuntza, Kirola, Gizarte-etxeak, Gazteria, Berdintasuna, Bizikidetzaren eta Aniztasuna... Proiektu horietan atal horien lidergoak eta ekimena bultzatu nahi genituzke, soilik Euskara Zerbitzuak bideratzen dituen proiektuak izan ez daitezkeen. Aniztasun arloa bereziki garrantzitsua dela iruditzen zaigu, azken batean, Gasteiz gero eta anitzagoa izango baita.
- Hezkuntza komunitateko eragileekin ere lankidetzaren sareak sendotzea nahi genuke, batez ere eskolaz kanpoko ekintzen eta familia-transmisioaren inguruan, baina baita euskarazko kulturaren transmisioan ere: elkarrekin jarduteko foroetan parte hartzen jarraitu eta foro horien ekimenak bultzatu, guraso-elkarteei laguntza eman, ikastetxeei zerbitzuak eman...
- Hainbat arlotan kultura soziolinguistiko berri horren lehen zantzuak espero ditugu: jauzi bat eskolaz kanpoko ekintzen arloan; euskararen presentzia handiagoa hiriaren hizkuntza paisaian; hiztun gazteen euskararekiko atxikimendua eta konpromisoa... bestek beste.

BALIOAK

Gasteizko Aroak bat egiten du Gasteizko ESEP dokumentuan ezartzen ziren printzipio edo oinarriekin. Honako hauek, alegia:

- Justizia soziala eta gizarte-inklusioa lortzeko baliabideak sortzea edo erraztea.
- Beste administrazioekin lankidetzan jarduteko borondatea.
- Euskararen gizarte-erakundeekin lankidetzan jarduteko borondatea.
- Ebaluazio mekanismoak aurreikustea eta ebaluazio parte-hartzailea bultzatzea.
- Arloz arlo, ekintzak aurrera eramateko, gizarte eragileen inplikazio bilatzea (enpresak, elkarteak, klubak, saltokiak...).
- Udalak berak normalizaziorako urratsak azkartzea, eta eredia izatea.
- Udal osoaren inplikazioa eragitea, ez soilik Euskara Zerbitzuarena.

Aurreko atal horiek guztiek gobernantzaren ideia ekartzen digute burura, marko estrategikoan funtsezkoa baita. Edonola ere, beste lau elementu ere aipatuko nahiko genituzke:

- Genero ikuspegiari erreparatzea, eta alde horretatik, ekintza guztietan, kalitatezko komunikazioa, zuzena, egokia, ulergarria eta ez-sexista bermatzea.
- Ikuspegi intersektionalari ere erreparatzea.
- Komunikazioari garrantzia ematea.
- Plana behar beste baliabidez hornitzea.

Neurri handi batean balio horiek guztiek gidatu behar gaituzte ekintzak planifikatzeko eta garatzeko orduan.

ARLOAK

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak hiru helburu estrategiko proposatzen zituen, hainbat arlotan desplegatuak:

- euskara ondorengoetaratzea (irakaskuntza, helduen euskalduntzea, familia bidezko transmisioa).
- euskara erabiltzea (administrazioan, teknologia berrietan, enpresa-munduan, aisialdian, kirolean).
- euskara elikatzea (liburu, irrati, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez).

Udalerri mailan arlo horiek sinplifikatzera jo izan dugu edota beste modu batean antolatzea, lana eta lankidetzara antolatze aldera. Arlo batzuk batu izan dira (aisia eta kirola, kultura eta komunikabideak, adibidez) baina beste batzuk sortu dira, zeharlerroak lantzeko edo kolektibo bereziak begiz jo direlako (kudeaketa, immigrazioa, gazteak...). Hori horrela, Gasteizko Udalaren azken plan estrategikoan honako arlo hauek landu dira:

ERABILERA-ESPAZIOAK

- Aisialdia eta kirola
- Arlo sozioekonomikoa
- Kultura eta hedabideak

HIZTUNAK

- Helduen Euskalduntzea
- Hezkuntza eta familia bidezko transmisioa
- Hiztun gazteak
- Immigrazioa
- Aktibazioa eta sentsibilizazioa

KUDEAKETA

- Zeharlerrotasuna
- Parte-hartzea
- Ebaluazioa
- Komunikazioa

Eusko Jaurlaritzak zertu duen marko estrategikoak, ordea, 6 proposatzen ditu:

- Gobernantza
- Jarrerak/motibazioak

- Ezagutza/gaitasuna
- Erabilera/elkarreragina
- Ikerketa/berrikuntza
- Komunikazioa

Ardatz horiek plan osoa zeharkatu behar dute, baina erraz ikusten da horietako batzuk leku erosoagoa dutela arlo batzuetan beste batzuetan baino. Erabat zuzena ez bada ere, honelako lerrokatze bat proposatu dugu:

Marko estrategikoak	Gasteizko Plana
ARDATZAK	ARLOAK
GOBERNANTZA	GOBERNANTZA ZEHARLERROAK
JARRERAK/ MOTIBAZIOA	SENTSIBILIZAZIOA ETA AKTIBAZIOA
EZAGUTZA/GAITASUNA	HEZKUNTZA ETA FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA HELDUEN EUSKALDUNTZEA KULTURA ETA HEDABIDEAK
ERABILERA/ ELKARRERAGINA	AISIALDI ETA KIROLA ARLO SOZIOEKONOMIKOA
IKERKETA, BERRIKUNTZA ETA SISTEMATIZAZIOA	ARLO GUZTIAK
KOMUNIKAZIOA	KOMUNIKAZIO-PLANA

Udalerri mailan oraingoz interesgarria iruditu zaigu arlo sektorialak mantentzea, arlo horietako eragileei protagonismoa emateko eta arlo horiek lantzen dituzten beste zenbait zerbitzu eta instituzio inplikatzeko.

Immigrazioa zeharlerroetan dago, baina baita helduen euskalduntzean, hezkuntzan eta familia bidezko transmisioan ere; horietan jatorri atzerritarra duten herritarrak euskarara erakartzea erronka baita.

Hiztun gazteak, batez ere, kulturan, sentsibilizazioan eta aktibazioan ageri dira, baina ez soilik.

Ondoren, erronkak, ekintza eta adierazleak aurkeztuko dira, arloka antolatuta.

0. ARLOA: GOBERNANTZA

ERRONKA 0.1. LIDERGO PARTEKATUAK LANDU: UDALA, BESTE ADMINISTRAZIOAK, EUSKARA-ELKARGUNEA

EKINTZA BATZUK:

0.1.1. Euskara-elkargunea indartu, parte-hartzaile berriak integratuz.

0.1.2. Arloz arlo, beste administrazioetan eta Udalaren beste zerbitzuetan sortzen diren foroetan parte hartu

ERRONKA 0.2. PLANAREN BAITAN PARTE-HARTZEA BULTZATZEA: BEREZIKI ARLOZ ARLOKO ERAGILEAK INPLIKATU

EKINTZA BATZUK:

0.2.1. Euskara Zerbitzuko eskumenak diren arloen gainean, gogoeta- eta formazio-saio zabalak antolatu, gai espezifikoen inguruan, laborategi gisa funtzionatu ahal dutenak: gai bat hautatu, sakontasunez landu.

0.2.2. Aukerak sortzen diren kasuetan, talde eragileak, koordinazio-taldeak edota praktika-komunitateak antolatu.

1. ARLOA: AISIALDIA ETA KIROLA

1.1. ERRONKA: UDALAREN ETA BESTE ERAGILEEN AISIALDI ETA KIROL ESKAINTZAN ERAGIN, URRATS ESANGURATSUAK EMATEKO (KUANTITATIBOAK ETA KUALITATIBOAK)

EKINTZA BATZUK:

1.1.1. Udalaren eskaintzan eragin.

- Zerbitzuz zerbitzu, helburuak jarri, egungo errealitatek abiatuta. Urtez urte planifikatu. Jarraipena egiteko sistema bat martxan jarri (zerbitzuetako memorieta hizkuntzaren atala berariaz eskatu). Tarteka ikerketak egin erabilera errealaz zein den aztertzeke.
- Hizkuntza irizpideak sistematizatu eta bateratu. Euskara hutsean antolatu daitezkeen ekintzak aztertu.

1.1.2. Proiektu esanguratsuak diruz lagundu.

- Auzo mailako euskara elkarteek aisialdian edo kirolean antolatzen dituzten jarduerari arreta berezia eman.
- Halaber, hiri osorako euskaraz antolatzen diren proiektuak hobetzeko laguntza eman.
- Dirulaguntzekin lotuta, formazio-saioak eskaini: zerk funtzionatzen duen eta zerk ez. Programen ebaluazioan urratsak eman. Proiektuak prestatzeko laguntza eta aholkularitza eskaini.

1.2. ERRONKA: MARKO BAT SORTU 16 URTETIK BEHERAKO AISIALDIA ETA ESKOLAZ KANPOKO JARDUERETAN URRATS ESANGURATSUAK EMATEKO

EKINTZA BATZUK:

Ekintza soltetik harago, marko izaera azpimarratu behar da. Eragile guztiak aldi berean norabide berean aritzea. Marko horrek lau geruza ditu: a) hiriko egoera marrazten jarraitzea; b) udalaren barruan erabaki batzuk hartzea; c) eragile pribatuen konpromisoa bilatzea, eta d) tokian tokiko proiektu pilotuak garatzea.

1.2.1. Eragileak identifikatzen eta arloaren mapa egiten jarraitu.

- 2021ean egin zen azterketa errepikatu, egoera orduko datuekin alderatzeko.
- Familia aisialdiari garrantzia berezia eman.

1.2.2. Udal zerbitzuekin irizpide bateratuak landu.

- Hainbat dira, arlo horretan ekintzarik edo programarik antolatzen

dituztenak. Horietako askok Udalaren Hiri Hezitzailea proiektuaren lantaldean edo/eta Uda Programen lantaldean koordinatzen dira. Bateratze-lana kontestu horretan egin daiteke. Kontratu, dirulaguntza zein hitzarmenetan hizkuntza-irizpideak txertatu.

1.2.3. Eragileak saretu eta konpromisoak adostu.

- Eskolaz kanpoko ekintzetan hiru eragile-mota dago: batetik, ikastetxeak (bereziki guraso elkarteak); bestetik, Udala (bereziki, gizarte etxeetan programatzen duten zerbitzuak), eta azkenik, eragile pribatu/sozialak (elkarteak, klubak, zerbitzu enpresak...). Ekosistema hori landu behar da: harremanetan jarri, ikuspegiak partekatu, neurri-bateria bat eskaini... Konpromiso-dinamika bat abiatu daiteke... batez ere eragile pribatuak inplikatzeko aldera.

1.2.4. "Aisialdi Auzoan" proiektuak garatu, auzo mailan.

- Aisialdi arloko planifikazio integrala izateko bokazioa landu. Auzo berrietara eraman.

1.3. ERRONKA: ERAGILEAK AKTIBATU, EUREN ARTEKO ARTIKULAZIOA ERRAZTU ETA HAIEKIN BATERA NORMALIZAZIO-EKINTZAK ANTOLATU

EKINTZA BATZUK:

1.3.1. AISIBERRI dinamika garatu eta dinamizatu. Hortik sortzen dena garatu. AISIBERRI dinamikaren helburua da aisialdi arloko eragileak biltzea "mintegi" edota "praktika komunitate" formatuan, aisialdiaren alorrean euskararen ikuspegitik behar diren berrikuntzak identifikatzeko eta horri begirako neurriak abian jartzeko.

- Plangintzaldiari begira 2 jarduera zehatz aurreikusi dira: (a) Gazteen aisialdiari buruzko formazio-saioa antolatu (edo jardunaldia, topaketa, lantaldea... formatu egokiena aztertu behar da). (b) Formazio saioa: Teknologia berriak nola erabili aisialdi elkarte batean? Zer da aisialdi digitala?
- Plangintzaldian formatu handiko bi topaketa edo jardunaldi antolatu.
- Jardunbide egokien katalogoa sortu eta garatu.
- Lantaldea sendotu eta garatu.

1.3.2. Kirol arloko eragileak biltzeko eta elkarrekin lan egiteko espazioak garatu, Marka eta Erronka dinamikaren baitan.

- Praktika komunitatea antolatzen jarraitu, gai zehatzen inguruan.
- Euskara eta kirol teknikarien Arabako lantaldea garatu. Talde eragile izateko baldintzak landu.
- Marka eta Erronka topaketa. Bi edizio berri egin.

1.3.3. Kirol arloan normalizazio-ekintzak antolatu.

- KEES programa (Kirol Entrenamenduetan Euskara Sustatzen)

antolatzen jarraitu. Bertan parte hartu dutenen arteko lankidetzadynamikak sortu. Eskalatzeko aukerak aztertu.

- Kirol entitateetan euskara planak egiten jarraitu.
- Jardunbide egokien katalogoa lantzen eta zabaltzen jarraitu.
- Dirulaguntzak eman kirol arloan euskararen erabilera sustatzeko, Udalaren Kirol Zerbitzuarekin batera.

1.4. ERRONKA: HEZITZAILEEN ETA ENTRENATZAILEEN FORMAZIOAN ETA AHALDUNTZEAN JAUZI BAT EMAN

EKINTZA BATZUK:

1.4.1. Elkarteetako kideen sentsibilizazioa landu

- Gurasoen sentsibilizazioa landu eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezen.
- Kirol elkarteekin sentsibilizazio-saioak egin, bai eta Lurraldeko federazioekin bai Arabako Foru Aldundiarekin batera:
 - Kirola zergatik da estrategikoa euskararen erabilera sustatzeko
 - Kirol Lanbideen Legea / Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Legea
- Euskaraldia baliatu, kirolaren eta aisialdiaren arloak aktibatuzko
- Kale-ekitaldiak egiten jarraitu, Udalaren Kirol Zerbitzuarekin batera, inpaktu mediatikoa eta komunikatiboa bilatzeko, batez ere.

1.4.2. Hezitzaileen eta entrenatzaileen formazioa landu

- Mendizabala ikastetxearekin formazioa lantzen jarraitu. Aisialdia - Kirola
- Aisiberri proiektuaren baitan, formazio-aukera berriak aztertu eta zabaltu. Aisialdia.
- Arabako Foru Aldundiarekin, Jaurlaritzarekin eta AFDArekin batera, entrenatzaileen formazioan eragin: batetik, euskaraz izan dadila; eta bestetik, euskara sustatzeko estrategiak barne hartu.
- Formazio saio monografikoak edota klinik erako saioak eskaini, hainbat diziplinetan (kirola)... Kirol gaien lanketa eta hizkuntzaren lanketa, biak batera egin. Kirol Zerbitzuarekin batera.
- Formazio-pilulak sortu eta zabaltu, kirol eta aisialdiaren alorrean.

1.4.3. Hizkuntzen kudeaketa aurreratua definitu, jarduera eta ikastaroetarako

- Testuinguru ezberdinetan nola jokatu: euskarazko saioetan, saio mistoetan (ele bikoak), euskara ez dakien pertsona bat dagoenean... Lanketa kolaboratiboa egin daiteke (ludotekekin egin genuen bezala): gogoeta-talde bat sortu, arazoak ikusi, esperientziak aztertu, irtenbideak bilatu
- Gida bat osatu
- Formazio ikastaroak eman.

Orokorrak:

- Erabilera informala: lagunekin erabiltzen den hizkuntza > Inkesta soziolinguistikoa
- Udalaren programazioa gizarte-etxeetan, antolatzailearen eta hartzailearen arabera > udalaren datuak
- Eskola-kirolaren hizkuntza egoera > Arabako Foru Aldundiaren datuak
- Eskolaz kanpoko ekintzen egoera > Berariazko azterketa.

Ekintzei lotutakoak:

- Kirol arloan euskara sustatzeko ekimenen bat hartu duten entitateen kopurua (desglosatua eta orotara): euskara plana egin, dirulaguntza eskatu, entrenamenduetan euskara sustatu, praktika komunitatean parte hartu...
- Gure ekimenetan (topaketak, bilerak...) parte hartzen duten aisialdi-talde edo enpresen kopurua.
- Formazio-saio kopurua hezitzaile eta kirol-begiraleekin eta parte-hartzaile kopurua horietan.

2. ARLOA: ARLO SOZIOEKONOMIKOA

2.1. ERRONKA: ARLO SOZIOEKONOMIKOAN EUSKARAREN PRESENTZIA ETA ERABILERA INDARTZEKO BALIABIDEAK ETA ERRAZTASUNAK EMAN

EKINTZA BATZUK:

2.1.1. Hizkuntza-paisaian inpaktu biderkatzailea bilatu

- Merkataritza-gune estrategikoak baliatu: El Boulevard-ek eskaintzen duen komunikaziorako espazioa baliatu.
- Azoka Plazako hizkuntza-paisaian eragin, hizkuntza irizpideak zaindu.
- Gero eta atzerriko jende gehiagok establezimenduak zabaltzen ditu, hauei gure dirulaguntza deialdia eta itzulpen zerbitzua helarazi, inpaktu linguistikoa kontuan hartzeko modukoa izan dadin.

2.1.2. Gure katalogoaren zabalpenarekin jarraitu eta establezimendu aliatuak identifikatu

- Erdigunetik kanpo dauden establezimenduei bisitak egin katalogoa hedatzeko.
- Aurrerapausoak eman dituzten establezimenduei aholkularitza zerbitzu sendoago bat eskaini, lanketa sakonago bat egiteko planteamenduak.

2.1.3. Sektoreko langileen ikastaroak eskaini bai eta euskara ikasteko bestelako baliabideak ere

- Merkataritza eta Enpresa Zerbitzuekin langileentzako ikastaroen deialdia zabaldu eta kanpaina koordinatu bat diseinatu.
- "Erraza da" aplikazioaren inguruko informazioa establezimenduei helarazi.

2.1.4. Urtez urteko establezimenduen mapa bat osatu

- Azterketa kualitatibo bat egitea ezinbestekoa da euskararen presentzian eragiten duten faktoreak zeintzuk diren ulertzeko. Zenbatek duten ziurtagiria, zenbatek errotulazioa euskaraz, zein auzoetan dauden, etab.

2.2. ERRONKA: LIDERGO KONPARTITUAU ETA ERREFERENTEAK SORTU ETA GARATU

EKINTZA BATZUK:

2.2.1. Merkataritza Zerbitzuarekin elkarlanean aritu

- Merkataritza Zerbitzuarekin elkarlana sistematizatu behar dugu

eta zerbitzuan hizkuntza politika zabaltzeko estrategiak diseinatu.

- Merkataritza-mahaietan parte hartu, sektoreko langile eta eragileekin harremanak estutzeko.

2.2.2. Beste eragileekin koordinazioa sistematizatu

- Udala (+kontratatutako enpresa), Aenkomer, Gasteiz On, El Boulevard, Merkataritza Ganbera... Koordinazio espazioak eraginkorrak izan daitezen gure agendak partekatu.

2.2.3. Koordinatu Arabako Lanabes taldearekin

- Talde honen koordinazioa baliatuko da Boulevarreko egoeraren jarraipena egiteko
- Talde honetatik bideratuko da Azoka plazan euskara sustatzeko diseinatuko den lanketa. Horretarako, Euskara Zerbitzua eta Jaurlaritzak zabalera handiko merkataritza gunetan euskararen erabilera sustatzeko kontratatzen duen enpresaren arteko elkarlana ezinbestekoa izango da.

2.2.4. Trakzio lana egin dezaketen establezimendu eta enpresak identifikatu eta erakarri

- Gure katalogoa aurkeztuko diegu eta Enpresen Forora gonbidatzea azter dezakegu, enpresa ezagunek hartzen dute parte bertan eta euskararen sustapenaren hausnarketa sakon bat egiteko eskainiko diegu.

2.2.5. Zigilu edo diru publikoa jasotzen duten edota kanpainetan parte hartzen duten enpresa eta agenteei betebeharrak batzuk zehaztea

- Bost urtez dirulaguntza deialdietara aurkeztu diren establezimenduei Euskara Plan baten diseinuarekin hastea proposatuko zaie. Mikroplan bat diseinatzen hastea proposatuko diegu, gutxika osatu beharrekoa, progresiboa izango dena

ARLO SOZIOEKONOMIKOA: ADIERAZLEAK

Orokorrak:

- Erabilera bezeroekin
- Erabilera lankideekin

Ekintzei lotutakoak:

- Zenbatek lortu dute ziurtagiri bat?
- Euskara sustatzeko dirulaguntza deialdian zenbat enpresa berrik parte hartu duten.
- Lanhitz deialdian zenbatek parte hartu duten.

- Merkataritza Ganberarekin hitzarmena: urtero zenbat matrikulazio egon dira?
- Arabako Enpresen Forora zenbat enpresa/merkatari erakarri ditugun.
- Merkataritza Zerbitzuarekin koordinazio-bilerak egitea eta merkataritza-mahaietan parte hartzea. Zenbat bilera urtean?

3. ARLOA: KULTURA ETA HEDABIDEAK

3.1. ERRONKA: EUSKARAZKO KULTURGINTZAREN TRANSMISIOAN LAN EGIN

EKINTZA BATZUK:

3.1.1. Kulturgintzaren transmisioan lanean ari diren taldeekin, beste administrazioekin zein Udalaren beste zerbitzuekin batera lankidetzan aritu.

3.1.2. Izaskun Arrue kulturgunearen proiektua bultzatu.

3.2. ERRONKA: SORMENA LANDU, BATEZ ERE GAZTEEKIN

EKINTZA BATZUK:

3.2.1. Gazte Sortzaileak programa garatu eta erreferenteak sortu. Formatu berriak esploratu gazteekin lan egiteko, euskarazko kultur kontsumorako eta transmisiorako.

3.2.2. Gazte sortzaileen saretzea. Eskoletara zabaltzeko aukerak berrikusi (bolo-bolo deialdiak, kasu).

3.3. ERRONKA: KULTURA DIGITALA EUSKARAZ LANDU

EKINTZA BATZUK:

3.3.1. XARE egiten jarraitu, euskara, gazteak eta teknologia berriak ardatz.

3.3.2. Gazteen aisialdirako eremuetan euskarazko baliabide digitalak erraztu, eragileen bitartez.

3.3.3. Berriaz saio bat antolatu gaiari buruz jarduteko (ikus. 0.2.1.)

3.4. ERRONKA: EUSKARAZKO TOKI-HEDABIDEEN BIDERAGARRITASUNA BERMATU ETA ZABALKUNDEA LAGUNDU

EKINTZA BATZUK:

3.4.1. Euskarazko hedabideen kontsumoa bultzatzeko bideak bilatu.

KULTURA ETA HEDABIDEAK: ADIERAZLEAK

Orokorrak:

- Gasteizko euskarazko kultura-eskaintza (%). (Kultura Zerbitzuaren memoriatik, programa nagusien hizkuntza-egoera).
- Euskarazko kulturaren eta hedabideen kontsumoa:
 - Liburuen mailegua. (Kultura Zerbitzuaren memoria)
 - Irratia entzutea euskaraz (euskaraz gaztelaniaz bezainbeste edo gehiago). (Inkesta soziolinguistiko propioa).
 - Alea aldizkariaren irakurleak. (Inkesta soziolinguistiko propioa).
 - Kultura jarduera euskaraz nahi, eta eskaintza egon ez. (Inkesta soziolinguistiko propioa).
- Euskarazko hedabideen eguneroko kontsumoa. (Euskararen Adierazle Sistema. Arabako datua).

Ekintzei lotutakoak:

- Kulturgintzaren transmisioan lanean ari diren eragileekiko (talde, beste administrazio, Udalaren beste zerbitzu...) lankidetzaren foroetan Euskara Zerbitzuak izandako parte-hartzea (bilera kopurua).
- Gazteekin sormena lantzeko antolatutako ekimenen kopurua.
- Gazteekin sormena lantzeko antolatutako ekimenean izandako parte-hartzaileen kopurua.
- Kultura digitala euskaraz lantzeko ekimenean (Xare eta abar) izandako parte-hartzaileen kopurua.
- Kultura digitalaren gaia lantzeko antolatutako saio edo bileretan parte hartu duten eragileen kopurua.

4. ARLOA: HEZKUNTZA ETA FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA

4.1. ERRONKA: HEZKUNTZA ARLOKO ERAGILEEKIN BATERA LAN EGIN, EUSKARAREN NORMALIZAZIOAN. HORRETARAKO SORTZEN DIREN BILGUNEETAN PARTE HARTU, ETA EKIMENAK AURRERA ERAMATEN LAGUNDU

EKINTZA BATZUK:

4.1.1. Berritzeguneak zein Udalaren Hezkuntza Zerbitzuak euskararen normalizaziorako sortzen dituzten bilguneetan parte hartu.

4.1.2. Euskal Curriculumaren ikuspuntua zabaltzen jarraitu.

4.1.3. Udalak antolatzen dituen jardueretan, Hiri Hezitzaile programan, adibidez.

4.1.4. Mintza On programa eskaintzen jarraitu, eta aztertu nola eman lehenetsuna baliabide gutxien dutenei.

4.2. ERRONKA: FAMILIA-TRANSMISIOAREN ETA FAMILIA-AISIALDIAREN EGOERA EZAGUTU ETA BERTAN ERAGIN

EKINTZA BATZUK:

4.2.1. Gasteizko familien hizkuntza-datuak jasotzea eta haientzat antolatzen diren ekintzen berri izan.

- Aztertu familien datu linguistikoak jasotzeko aukera jaioberriak erroldatzen diren momentuan.
- 6 urtera bitarteko haurren gurasoei zein familiei zuzendutako jardueren informazioa bildu (euskara egitasmoena zein euskarari begirakoak ez direnena) eta aztertzea non eragin daitekeen.
- Guraso-elkarteetako ordezkariekin elkarlan jarraitua egin, hizkuntzari buruzkoak lantzeko eta gurasoekiko zubi-lana egin dezaten.

4.2.2. Familian euskaraz aritzeko arnaguneak eta sozializazio-jarduerak eskaini.

- Antolatutako euskarazko aisialdiko jardueren eskaintzari buruzko informazioa zabaldu (Korrika, Euskaraldia, Euskararen eguna...).
- Guraso-elkarateek antolatzen dituzten ekintzetarako dirulaguntzak mantendu, ekintza horien katalogoa egin (praktika onak) eta informazioa zabaldu gainerakoei.
- Jarraitu orain arteko jarduerak eskaintzen familientzat (Igandek Jai, sentsibilizazio-hitzaldiak eta familian jolasteko tailerrak...) eta beste batzuk sortu; guraso ez-euskaldunentzat esaterako.

- Udalaren kultura- eta kirol-arloko programazioan eragin, familientzat euskaraz programatu dezaten.

4.2.3. Familia bidezko transmisioari buruzko lanari jarraipena emateko egitasmoaren planifikazio-, kudeaketa- eta ebaluazio-lan jarraitua egitea.

4.3. ERRONKA: GURASOAK SENTSIBILIZATZEKO ETA AKTIBATZEKO INFORMAZIOA, AHOHKULARITZA ETA BALIABIDEAK EMAN: IKASTEKO ETA ERABILTZEKO

4.3.1. Haur jaioberriak eta etorri berriak erroldatzen direnean, hizkuntzari buruzko argibideak eta baliabideak emateko harrera-protokoloa diseinatzea eta martxan jartzea.

4.3.2. *Gurasoentzako Gida. Eskolan, kalean eta etxean, euskara lagun osatu eta banatu da, banaketarekin jarraitu.*

- Etorri berrien taldeetarako egokitu eta zabaldu Aldundiarekin eta Aniztasun Zerbitzuarekin elkarlanean.

4.3.3. Gasteiz Hiri Hezitzailea programaren barruan, sentsibilizazioa eta erabilera sustatzeko hitzaldiak eta tailerrak antolatu.

- Eskaintza zabaldu eta saiatu baliabide guztiak erabiltzen.
- Eskaini atzerritarrekin lan egiten duten elkarte eta entitateei
- Lingolang ikastaroa ikastetxe gehiagotan eskaini
- Prestakuntza-saioak eskaini familientzat antolatzen diren saioetako hezitzaileei euskarari tokia egin diezaioten, saioak gaztelaniaz izaten baitira.

4.3.5. Udalaren haur-eskolei hizkuntzari buruzko (tartean, familia bidezko hizkuntza-transmisioari buruzko) aholkularitza eskaini eta informazioa helarazi.

- Udalaren Haur Eskoletako urteko planean txertatu familia bidezko hizkuntza transmisioaren gaia.
- Aztertu nola txertatu Guraso-eskolak programan (Hezkuntza Zerbitzuak ikastetxeetan familiei eskaintzen dien programa) hizkuntzaren irizpideak. Batetik, zer aukera dauden guraso eskola bat euskaraz antolatzeko edo antolatzen diren ikastetxe guztietan saio bat euskaraz izateko. Bestetik, guraso-eskoletan txertatu familia bidezko hizkuntza transmisioaren gaia; prestakuntza soziolinguistikoa lantzeko saio berezi bat, adibidez?

4.4. ERRONKA: JATORRI ATZERRITARRA DUTEN HERRITARRAK EUSKARARA ERAKARRI (FAMILIETAN ERAGIN)

4.4.1. Harremanak sustatu Udal barruko zerbitzuekin haien ekimenetan euskara zehar-lerroa izan dadin.

4.4.2. Gasteizko arloko eragileekin harremanetan jarri eta aztertu haien proposamenak: Aisa, Mintza On...

4.4.3. Etorri berrien taldeetarako egokitu eta zabaldu Gurasoentzako Gida.

4.4.4. Sentsibilizazioa eta erabilera sustatzeko hitzaldiak eta tailerrak eskaini atzeritarrekin lan egiten duten elkarte eta entitateei.

HEZKUNTZA ETA FAMILIA BIDEZKO TRANSMISIOA: ADIERAZLEAK

Orokorrak:

- Matrikulazio datuak B eta D ereduan
- Etorri berriak zer eredutan matrikulatzen dira (lortzerik baldin badago)

Ekintzei lotutakoak:

- Zenbat ikasle Mintza On programan
- Zenbat ikastetxerekin eta guraso-elkarterekin egin dugu lan?
- Zenbat ekintza eskaintzen ditu euskaraz Euskara Zerbitzuak familientzat, zuzenean edo zeharka: igandeak jai, hitzaldiak eta tailerrak
- Jaioberrientzako familientzat protokolorik egin al da?
- Zenbat begiralek hartu du parte prestakuntza-saioetan?
- Zenbat ikastetxetako guraso-eskolan eragin dugu?
- Etorri berrien zenbat elkarterekin edo entitatearekin izan ditugu harremana?

5. ARLOA: HELDUEN EUSKALDUNTZEA

5.1. ERRONKA: MOTIBAZIOA LANDU: EUSKARA IKASTEKO BEHARRA SORTU ETA EUSKARARI BALIOA EMAN.

EKINTZA BATZUK:

5.1.1. Urtez urte matrikulazio-kanpainak egin

5.1.2. Motibazioa lantzeko eta euskara ikasteko beharra sortzeko aukerak aztertu eragileekin batera. Motibazio pragmatikoa sustatzeko neurri berritzaileak aztertu.

5.2. ERRONKA: UDALAREN ESKAINTZA INDARTU ETA IKASLE BERRIAK ERAKARRI

EKINTZA BATZUK:

5.2.1. Udalak gaur egun duen eskaintza indartu.

- Lehen mailako ikastaroen eskaintza indartu.
- AISA ikastaroak eta merkataritza eta ostalaritzako ikastaroak sortzeko arlo bakoitzeko eragileekin harremanak indartu. Horretarako, Udalaren beste zerbitzuekin elkarlanean aritu.

5.2.2. Ikasle berriak erakartzen saiatu

- Aztertu nola erakarri gazteak euskara ikastera, haien gaitasuna garatu eta lantzeko.
- Euskara ikasteko beharra sortu arlo sozioekonomikoan.

5.3. ERRONKA: EUSKARA IKASTEKO ERRAZTASUNAK ESKAINI

EKINTZA BATZUK:

5.3.1. Euskara ikasteko dirulaguntzak ematen jarraitu.

5.3.2. Euskaltegiei lagundu erabilera sustatzen.

- Mintzalaguna proiektua mantendu.
- Erabilera sustatzeko proiektuak gara ditzaten, euskaltegientzako dirulaguntzak mantendu.

5.4. ERRONKA: JATORRI ATZERRITARRA DUTEN HERRITARRAK EUSKARARA

ERAKARRI (EUSKALDUNTZEA)

EKINTZA BATZUK:

5.4.1. AISA ikastaroak antolatu: gizarte-etxeetan, ikastetxeetan, etorkinen elkarteetan...

5.4.2. AISA ikastaroen zabalkundea hobea izan dadin, Inklusio Zerbitzuarekin eta Bizikidetzeta eta Aniztasun Zerbitzuarekin lankidetzan aritu.

5.4.3. Lineako Aisa ikastaroen berri eman, jende gehiagorengana iristeko asmoz.

HELDUEN EUSKALDUNTZEA: ADIERAZLEAK

Orokorrak:

- Euskaltegietako matrikulazio-datuak

Ekintzei lotutakoak:

- Zenbat ikasle dago eta zenbat talde sortu dira Udalaren taldeetan?
- Zenbat parte-hartzaile dago Mintzalagun programan?
- Zenbatek hartu du parte euskaltegiek erabilera sustatzeko antolatutako ekintzetan?

6. ARLOA: SENTSIBILIZAZIOA ETA AKTIBAZIOA

6.1. ERRONKA: ERA GUZTIETAKO ERAGILEAK AKTIBATZEKO EGITASMOAK ABIAN JARRI

EKINTZA BATZUK:

6.1.1. Euskaraldiaren ariketa soziala gauzatu dadin, finantzazio-sistema ezarri.

- Ahalduntze ekintzak eta erabilerarako giro sozial egokia sortzea eta eskaintzea.

6.1.2. Hiri osoko euskararen aldeko sentsibilizazio-ekintzei lagundu.

6.1.3. Euskararen aldeko atxikimendua indartu eragileei laguntza eta baliabideak eskainita, hiru maila hauek kontuan izanda:

- Euskararen alde jarduten duten auzo zein hiri mailako eragileak.
- Euskararekin lotura zuzena izan ez, baina euskararen erabileran pausoak eman nahi dituzten eragileak.
- Oro har euskararen aldeko iritzian sakondu dezaketen ekintzak eta eragileak.

6.2. ERRONKA: GAZTEEN AKTIBAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA LANDU

EKINTZA BATZUK:

6.2.1. Hizkuntza gutxituetako hiztun gazteen topaketak egiten jarraitu eta formatu berriak esploratu.

6.2.2. Institutuetako euskara-batzordeen topaketak egiten jarraitu, euskararekiko interesa duten ikasle gazteen saretzea, gogoeta, sentsibilizazioa eta ahalduntzea bultzatzeko.

6.3. ERRONKA: EUSKARAREN ALDE LAN EGITEN DUTEN ERAGILEEN LANKIDETZA-SAREA BULTZATU

EKINTZA BATZUK:

6.3.1. Erabilera eta normalizazioa sustatzea helburu duten entitateak:

- Identifikatu eta mapeoa egin.
- Elkar ezagutzeko bitartekoak sortu.
- Lankidetzarako aukerak sortu eta dinamizatu.

- Saretzeko euskarri eta lanabes fisiko nahiz digitalak garatu.

6.3.2. Euskararen asteko ekintzak diruz laguntzen jarraitu.

SENTSIBILIZAZIOA ETA AKTIBAZIOA: ADIERAZLEAK

Orokorrak:

- Erabileraren datuak

Ekintzei lotutakoak:

- Zenbat parte-hartzaile Euskaraldian
- Zenbat arigune
- Zenbat parte-hartzaile gazteen aktibaziorako egitasmoetan

7. ARLOA: ZEHARLERROAK

7.1. ERRONKA: ANIZTASUNARI DAGOZKION POLITIKETAN EUSKARAREN IKUSPEGIA TXERTATU, ETA —BEHAR IZANEZ GERO— PROIEKTU KOMUNAK LANDU

EKINTZA BATZUK:

7.1.1. Lantalde bat sortu, Bizkikidetza eta Aniztasun Zerbitzuarekin, honako gai hauen lanketa bideratzeko:

- Harrera-prozesuetan hizkuntza-harrera txertatu, euskararen existentzia eta garrantzia azaltzeko hizkuntza ezagutzen ez dutenei.
- Gaztelania ikasteko ikastaroetan, euskararen ikuspegia txertatu (nozio minimo batzuk).
- Euskara Zerbitzuak garatzen dituen proiektuetan aniztasunaren ikuspegia txertatu.

7.2. ERRONKA: BESTE ZERBITZUEKIN BATERA LAN EGIN, EUSKARAZKO KULTURAREN GARAPENARI BEGIRA

EKINTZA BATZUK:

7.2.1. Kultura Zerbitzuarekin batera, udalaren kultura eskaintza aztertu eta hobekuntzak landu. Hirian eragin handia izan dezaketen ekintzak edo jarduerak landu.

E 7.3. EUSKARAREN IKUSPEGIA TXERTATU BERDINTASUN POLITIKETAN, ETA BERDINTASUNAREN IKUSPEGIA HIZKUNTZA POLITIKETAN

EKINTZA BATZUK:

7.3.1. Euskara Planaren genero-eragina aztertzea, eta ebaluazioa egitean ateratako ondorioak aplikatzea:

- Azterlan, soziolinguistika lan eta estatistiketan genero aldagaia eta ikuspegia sartu, ustiari eta aztertzea.
- Berdintasun irizpideak kontratu, dirulaguntza eta lankidetzahitzarmenetan.
- Lan-ildoetan proposatzen diren ekintza batzuen generoaren arabera eragina aztertzea.
- Lan-ildoak osatzen duten helburu estrategikoak, estrategiak, ekintzak eta adierazleak genero-ikuspegiaren arabera moldatu edo/eta, beharrezkoa izanez gero, berriak proposatzea.

7.3.2. "Vitoria-Gasteizko Udaleko Euskara Zerbitzuaren programetan genero-ikuspegia txertatzeko behararen eta aukeraren azterketa" (2014) eguneratzea.

7.4. ERRONKA: EUSKARAREN ZEHARLERROTASUNA BERMATU UDALAREN SAIL, ZERBITZU ETA ATALETAKO JARDUERETAN.

Udalaren zenbait zerbitzu gizarte izaerakoak dira, hots, haien arloko hainbat ekimen gauzatzen dituzte herritarrentzat, herritarrei begira; herritarrek zuzenean parte hartzen dute ekimen horietan. Zerbitzuaren planean biltzen dira ekimen horiek guztiak, esaterako Kultura Plana, Hezkuntza Plana, Kirol Zerbitzuaren plan estrategikoa...

EKINTZA BATZUK:

7.4.1. Zerbitzuek planak diseinatu behar dituztenean, zerbitzu bakoitzarekin bildu, euskararen erabilera sustatzeko irizpideak/euskararen erabilera kontuan hartzen direla/dela ziurtatzeko.

7.4.2. Udalak kudeatzen dituen kontratu, hitzarmen, dirulaguntza eta lagapenetan hizkuntza-irizpide egokiak ezartzen direla bermatzeko aurrerapausoak eman. Horretarako, zerbitzu bakoitzekoak aztertu zerbitzuko teknikariek elkarlanean.

8. ARLOA: KOMUNIKAZIOA

8.1. ERRONKA: KOMUNIKAZIOA LANDU, URTEZ URTE

8.1.1 Eragileen lana gizarteratzeko euskararen agenda proiektua aurrera eramaten jarraitu.

8.2. ERRONKA: EUSKARAREN DISKURTZO BERRIA SORTU. KOMUNIKAZIO-ESTRATEGIA KOMUN ETA OROKORRA DISEINATU EUSKARAREN BALIOA ETA BEHARRA TRANSMITITUKO DITUENA.

8.2.1. Gainerako administrazioekin batera, aztertu komunikazio-estrategia adostu bat diseinatzeko aukera, hainbat populazio-talderen iritziak jasotzeko eztabaida-taldeen bitartez.

8.3. ERRONKA: BIDEAK AZTERTU EUSKARA IKASTEKO ETA ERABILTZEKO BEHARRA SORTZEKO

8.3.1. Indartu Udalak euskara hutsez antolatzen dituen ekintzak, eta haien zabalkundea egin.